

SAREKIDEEN TXOSTENA

**EUSKARARI
PUZKA
2019**



agerraldia

ALDAKETAK DATOZ

«Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka» kanpainaren 7. edizioa ate joka dugu dagoeneko. Arin esaten da, baina, atzera begiratuta, guztion alearekin osatu dugun hareatza itxuroso ageri zaigu begi parean. Ia 80.000 saski eraman ditugu Nafarroa hegoaldeko barretetik Euskal Herriko txoko guztietako sukaldeetara eta ia 1.000.000€ bideratu dugu Euskal Herriko txoko guztietatik Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara. Eremu eta jatorri anitzetako pertsonak ibili gara elkar hartuta: ekoizle mordoak, ehunka boluntario, milaka kontsumitzaile.

Ezbairik gabe, geure buruaz harro egoteko moduan gara; alabaina, ez genuke autokonplazentzia erosoan erori behar. Erronka handiak ditugu oraindik, eta horien tamainako erantzunak asmatzen saiatu behar dugu. #EUSKARARIpuzka kanpainaren 7. edizioan horretan saiatu gara: eskaintzan, ekarpenean eta funtzionamenduan zenbait aldaketa tarteko, aha-

leginak eraginkortu eta emaitzak hobetzeko saioa egingo dugu, kanpainaren izpiritua mantenduta.

Diru-ekarpenari dagokionean egingo dugu, akaso, apustu handiena. Kanpainaren bizi-itxaropena gainditzera datorren eta Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara haize freskoa ekarri nahi duen ekimena jarriko dugu martxan: Agerraldia. Ekarpeneko zati bat bideratuko dugu horretara.

Eskaintzari dagokionez, saski zuria lehenengoz eskaini genuenetik 3 edizio joan direnean, planteamendu berri bat egiteko sasoia delakoan gaude.

Funtzionamenduan egingo ditugun aldaketak alor informatikoari lotuta daude batik bat. Web-plataforma berria estreinatuko dugu aurtengoan, eta horrek hainbat aldaketa ekarriko ditu sarekideei zein kontsumitzaileei begira.

URTEA	ESKAINZA	ESKAERA	EKARPENA
2012	<i>Errigora sortu aurreko esperientzia</i>	1.600	34.000€
2013		IA 9.000	112.000€
2014		IA 13.000	160.000€
2015		12.500	157.000€
2016	 + 	14.000	175.000€
2017	 + 	14.000	175.000€
2018	 + 	13.000	162.500€

EKARPENA

Agertokia

Hizkuntza bat: euskara. Munduan 7.000 inguru omen dira, bakoitza bere eremu, hiztun eta borroka propioekin. Badira mundu zabalean mintzatzen diren hizkuntzak eta azalera txikiagoetan bizi direnak; milioika lagun ahotan dabiltzanak edo dozena erdi hiztun dituztenak; nagusi bihurtu direnak zein bizitzeko borrokan dihardutenak. 7.000 horietako bat da euskara, geurea, bertakoa eta beste inon bizi ez dena.

Eremu bat: ager vasconum. Erromatarrek euskaldunen luraren hegoalde zabalari izen hori jarri ziotelakoan, deitura bera erabili ohi da, bi mila urte beranduago, Nafarroaren hegoak izendatzeko. Cortesetik Garesera eta Vianatik Zangozara doan eremua litzateke ager vasconum; Nafarroaren «lur be-roen sabel emankorra».

Agerraldia

Agerraren eremuan euskara plazara ekarri nahi duen ekimen berria erditzeaz da Errigora. Euskara jende gehiagok ezagutu, erabili eta estimatu dezan eragin nahi dugu, ilusioz eta kemenez agerrarazi eta

ilusio eta kemen berrien agergerri izango den mugimendua sustatuz. Agerraren aldia iritsi da; euskarak eremu guztietan agerpena egiteko ordua da. Hemen da Agerraldia.

Agerbidea

Bide praktikoa zabaldu nahi dugu: argia, eragilea, bultzatzailea. Agerreko euskaldunak eta euskaltzaleak, norbanakoak nahiz eragileak, protagonista bihurtu nahi ditugu. Eremu honetan guztian euskararen agerbideak ugaldtu eta euskarari, oro har, bultzada handi bat eman nahi diogu. Atzo eginda koaren eta gaur egiten ari denaren osagarri eta indargarri izan nahi dugu.

Hiru moldetan agertuko zaigu Agerraldia: batetik, euskara ezagutzeko aukerak lagundu eta handitzeko ahaleginean; bigarrenik, euskara erabiltzeko espazioak sortu eta egonkortzeko ekimenean; hirugarrenik, euskararen aldeko jarrerak indartu eta susperetzeko ekinean. Eremu guztiak zeharkatuko dituzten bideak ibili nahi ditugu: dela kulturaren alorra, edo aisialdia, kirola, lan-eremua, hedabideena, irakas-kuntza, sare sozialak...



agerraldia

TAFALLA, AGERRALDIAREN AURKEZPENA PRESTATZEKO BILERA.



Agerkera

Esan bezala, Errigoraren baitatik jaioko da Agerraldia, baina bizitzarako armak amarengandik jaso arren, zilbor-hestea etenda, bere bide propioa eginen du alabak. Era berean, ekimena agertu eta gorpuztu ahala, bere burua doitzeko eta egokitzeko ahalmena izanen du. Hala ere, abiapuntua argia da: Agerreko ekimena da, bertan eta bertarako sortua eta eratua, bertan kudeatuko dena eta erabakiak bertan hartuko dituen.

Mugimendu bat eragin nahi duen ekimenaren forma izango du Agerraldiak. Euskararen eta euskal kulturaren alde ari diren norbanakoak eta eragileak saretuko ditu askotariko mugimendua eragiteko. Askotariko gaiak, pertsonak, eragileak eta ekintzak bultzatuko, lagunduko eta sustatuko ditugu.

Agertzaileak

Agerraldiaren eginkizun nagusietakoa agertzaileak saretzea izanen da, han-hemenka ari diren euskal-

dun eta euskaltzaleek elkar ezagutzea, ideiak eta proiektuak trukatzeta, indarrak batzea, baliabideak partekatzea... Gauzak egin ez ezik, gauzak elkarrekin pentsatzea, aztertzea eta eztabaidatzea; ideiak, egitasmoak eta gogoetak elkarri agertzea.

Behetik gora eginen dugu bidea. Agertzaile horien guztien baturatik eta elkar hurbiltzetik etorriko da Agerraldia, eta horrek ekarriko du beste eremu batzuetako eta beste tamaina bateko eragileei ekintza edo proiektu zehatzetan parte hartzeko deia egiteko aukera.

Ekimena eta mugimendua Nafarroako Agerrean kokatuko bada ere, bere hegoak lurralde horretatik kanpo ere astinduko ditu. Errigorak egiten duen antzera, Euskal Herri osoko norbanako eta eragileekiko elkarlana eta haien laguntza ere baliatu ditzake Agerraldiak: Laudioko euskaltzaleek, Garaziko dantzariak, Bilboko erakundeak, Orioko arraunlariek, Iruñeko unibertsitarioek edo nazio mailako erakunde zein eragileak parte hartu ahalko dute Agerraldiaren jarduera eta ekintzetan.

ESKAINTZA

Aurtengo kanpainaren bigarren berritasun nagusia izango da eskaintzaren berrikuntza: 50€ko saski biren planteamendutik, izaera eta prezio desberdinetako hiru saskira pasatuko gara.

Saski beltza, orain arte eskaintzen izan dugun molde-

ko saskia izango da, betikoa, 50€ren truke jaso ahal izango dena. Berdea 60€tan eskuratu ahal izango da, bistan denez, produktu ekologikoz osatua. Saski zuria —berezia— 70€ko balioa izango du; gabonetako saski baten tankerakoa egin nahi izan dugu, formatik bertatik ere besteetatik desberdinduz.



50€
BELTZA
— betikoa —



60€
BERDEA
— ekologikoa —



70€
ZURIA
— berezia —

Euskalgintzara bideratuko den ehunekoan ez dago aldaketarik: saski bakoitzaren balioaren %25 joango da Nafarroa hegoaldean ikastolak, Sortzen eta AEK-ren ekimenak laguntzera eta, aurretik esan bezala, Agerraldia abiatzera. Zehazki, beltza hartuta, 12,50€ emango dizkiozu euskarari; berdea eskatuz gero, 15€ eta zuriaren bidez 17,50€.

Produktu guztiak hornitzeko, iazko ekoizle guztiez gain, bi etxe gehituko dira aurtengoan: Aristu eta Azanza, ardo apartsua eta patxarana jartzeko, hurrenez hurren. Honenbestez, aurtengo ekoizleen zerrenda 25 etxek osatzen dute:

- Ablitasgo kooperatiba
- Aristu (Irunberri)
- Azanza (Abarzuza)
- Biosasun (Discastillo)
- La casa del aceite (Cascante)
- Bardea (San Isidro del Pinar)
- Ekolo (Arroitz)
- Monasterio de Cascante
- El Molinero (Arroitz)
- Alcaravan (Arguedas)
- Urrutia (Uxue)
- Martinelli (Beriain)
- Azpea (Irunberri)
- Lezaun (Lakar)
- Mendiko (Oibar)
- Almanaque (Andosilla)
- El Agricultor (Lerin)
- La Churta (Allo)
- Ebron (San Adrian)
- El Escolar (San Adrian)
- Iturri (Arroitz)
- Maria Jesus (Ablitas)
- Pedro Luis (Lodosa)
- Larrinaga (Urantzia)
- Gobeiaberri (Lodosa)

SASKI BELTZA —BETIKOA—	SASKI BERDEA —EKOLOGIKOA—	SASKI ZURIA —BEREZIA—
ORBURUAK	ORBURUAK	ORBURUAK
ZAINZURI ZURIAK	ZAINZURI ZURIAK	ZAINZURI ZURIAK
PIKILLO PIPERRAK	PIKILLO PIPERRAK	PIKILLO PIPERRAK
BOTILA ARDOA	BOTILA ARDOA	ARDOA (KRIANTZA)
OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA	OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA	PATXARANA
POTXAK	POTXAK	ARDO APARTSUA
MAHATS-ZUKUA	MAHATS-ZUKUA	POLBOROIAK
ZAINZURI-KREMA	ARROZA	PATXARAN MANTEKATUAK
TEILAK	PASTA	TXOKOLATEZKO ARROKAK
MELOKOTOIA ALMIBARREAN	BARAZKI-MENESTRA	PIKILLO PIPER MARMELADA
KARDUA	OZPINA	
TOMATE FRIJITUA		
PIPER TXORIZERO MAMIA		

WEB PLATAFORMA

Kanpaina berriarekin batera webgune berria jarriko dugu martxan, eta horrek orain arteko prozesuak eta lan egiteko moduak aldatzea ekarriko du. Webgunea eraikuntza fasean badago ere, jarraian deskribatzen ditugu eskainiko dizkigun aukera berriak.

Kontsumitzaileari begira

Orain arte erabiltzen genuen inprimaki sistema alde batera utzi, eta online denda batean bezala egingo dira kanpainetako eskaerak.

- **Produktuak gehitzea:** kanpainako produktuen deskribapena ikusi ahal izango du eta, erosi nahi izanez gero, erosketa-orgara gehituko ditu.
- **Identifikazioa:** eskaera bakoitzean bere datu pertsonalak sartu behar izatea ekiditeko, webgunean erabiltzailea izango du kontsumitzaileak. Horretarako, lehenengoz eskaera egiten duenean bere datuak sartuta (izen-abizenak, emaila...), automatikoki erabiltzailea sortuko

zaio eta emailean jasoko dute eragiketa honen berri.

- **Gunea aukeratzea:** aukeratutako produktuak non jaso nahi dituen hautatzea da hurrengo pausua. Horretarako gune guztiak batzen dituen mapa eta zerrenda bat izango ditu erabilgarri.
- **Konfirmazioa:** orain arte bezala, kontsumitzaileak konfirmazio mezu bat ikusiko du eta emailez ere jasoko du egindako eskariaren informazioa.

Azken kanpainetako eskakizunei erantzunez, ordainketa kreditu txartel bidez egiteko aukera izango du kontsumitzaileak. Ordainketa gehienak modu honetan izateko jarraian agertzen diren bitartekoak jarriko ditugu:

- Eskaeraren konfirmazio orrian zein emailean, ordainketa egiteko botoia erakutsiko da.
- Banaketa datak hurbildu ahala, oraindik ordaindu ez dutenei emaila bidaliko zaie online ordainketa egiteko aukera gogoratuz.



Sarekideari begira

Kontsumitzaileei begira ez ezik, webgune berriak sarekideon autonomia areagotzea ere badu helburu. Kanpaina aurreko asteetan egingo ditugun bilerak baliatuko ditugu webgunerako sarbideak sortu eta egin beharreko lanak azaltzeko. Aurrerago, webgunearen erabilerarako gida osatuko bada ere, jarraian azaltzen ditugu "intranet" berri honetan egitekoak:

- **Kanpainaren prestaketa:** kanpainaren prestaketa lanetan sarekideak banaketa-guneen informazioa sartuko du:
 - Gunearen helbide eta koordinatuak sartuko

ditu, kontsumitzaileek guneak aurki ditzaten.

- Banaketaren informazioa osatuko du, alde batetik produktuen banaketa kudeatu ahal izateko eta, bestetik, kontsumitzaileei produktuak noiz jasoko dituzten adierazteko.
- **Kanpainan zehar:** online egindako eskaeren zerrenda ikusteko aukera izateaz gain, eskuorrietatik jasotako eskaerak erregistratzeko modua izango du. Zertarako?
 - Eskuorri bidez eskaria egin dutenei, kreditu txartela erabiliz, online ordaintzeko aukera emateko.

- Banaketan eskaera-zerrenda bateratua izateko.
- Eskuorrietan batzen ditugun kontsumitzaileen datuak gorde eta eskaeraren jarraipen, aldaketa edota hurrengo kanpainen berri emateko.
- **Eskaera epea bukatzerakoan:** herrian eskuorri edo bestelako bitartekoak erabiliz batutako eskaerak nork bere arduradunari jakinarazteko bide lehenetsia izango da plataforma, horretarako sortuko diren ataletatik. Eskatutako eta jasotako produktuen arteko bat ez etortzeak ekiditeko prozedura ere jarriko dugu martxan.
- **Banaketa:** sarekideak bere ardurapean dituen guneetako eskaeren informazio guztia izango du eskura:
 - Gunera heldu beharreko produktuen zerrenda. Gune horretatik beste gune batzuetara produktuak bideratu behar badira, informazio hori ere bertan ikusi ahalko du.
- Banaketarako zerrendak deskargatzea: kontsumitzaile bakoitzak zer eskatu duen eta eskaera ordainduta dagoen edo ez.
- Horrez gain, gune batean eskaera egin duten kontsumitzaileei notifikazioak bialtzeko tresna jarriko dugu martxan (adibidez, banaketa eguna aldatu behar izan dela iragartzeko).
- **Kanpaina ixtea:** bukatzeko, gune bakoitzean egin beharreko ordainketen informazioa izango du eskuragarri:
 - Kontu-korronteen informazioa.
 - Diru-sartzean adierazi beharreko kopuru eta kontzeptuak.

EGUTEGIA

IRAILA ETA URRIA Prestaketa lanak
URRIAK 29 Kanpainaren aurkezpena
AZAROAK 9 Auzolana Ablitasen
AZAROAK 20 Eskaerak jasotzeko azken eguna
ABENDUAK 9-18 Saskien banaketa
ABENDUAK 24 Dirua sartzeko azken eguna
KANPAINA
BANAKETA
DIRU-SARTZEAK

URRIA						
28	29	30	31	1	2	3
AZAROA						
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	25
25	26	27	28	29	30	1
ABENDUA						
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29